

Sozializatzeko-estiloen garapena¹

Paula Elosua Oliden
Begoña Arrieta Egaña
Begoña Unanue Artola
Alazne Aizpitarte Gorrochategui

Euskal Herriko Unibertsitatea
Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila
Psikologia Fakultatea

GAKO-HITZAK: Sozializatzeko-estiloak. Testak egokitzea. Bariantza analisia. Lagina.

1. SARRERA

Gurasoekiko sozializatzeko prozesuek eta horiek haurrengan eta nerabeengan dituzten eraginak asko ikertu dira psikologikoan eta hezkuntzan (Arnett, 1995; Musitu eta Allat, 1994 Scarr, 1993). Izan ere, sozializatzeko prozesuen menpe daude gizartearekiko haurrengan egokitzea, eta gizartearen haurrak izango duen papera ere. Nerabeekin diharduten irakasle, psikologo eta pedagogoen horien jokabide-ereduak azaltzerakoan berebiziko garrantzia ematen diote familia-giroari. Nerabeek gurasoekiko dituzten erlazioak eta gurasoek nerabeekiko dituztenak ezagutzeak (sozializatzeko-estiloak) nerabeen jokabideak azaltzen lagunduko luke eta balizko partehartzea bideratuko luke.

Egun familia-barneko sozializatzeko-estiloak azaltzeko bi dimentsio-dun eredu teorikoa onartzen da; dimentsio horiek *inplikatzeko* eta *gainbegiratzeko* dira (Barber, Chadwick eta Oerter, 1992; Barnes eta Farrel, 1992; Foxcroft eta Lowe, 1991; Lamborn, Mounts, Estenberg eta Dornbusch, 1991; Paulson eta Sputa, 1996; Shucksmith, Hendry eta Glendinning, 1995; Smetana, 1995; Steinberg, Lamborn, Darling, Mounts eta Dornbusch, 1994). Bi dimentsioak independenteak dira eta gurasoek horietan erakusten dituzten mailak jarrai baten bidez islatu daitezke. Seme-alabekiko inplikatzeko maila oso baxuko eta maila oso altuko gurasoak daude; era berean gainbegiratzeko-maila desberdineko gurasoak daude. Oro har bi dimentsio horiek gurutzatuz lau gizarteratzeko-estilo definitzen

¹ Lan hau UPV/EHUren dirulaguntzaz gauzatu da 1/UPV 00109.21-H-15904/2004

dira (Lamborn eta lag., 1991; Steinberg eta kol., 1994). Izan ere dimentsioak independenteak izatean inplikatzeko maila altua eta gainbegiratzeko baxua batera ager daitezke. Hala nola lau sozializatzeko-eredu orokor definitu dira:

- Baimentzailea*. Estilo honek bi dimentsioetan balio altuak ditu; Inplikatzeko maila altua eta gainbegiratzeko maila altua
- Permisiboa edo barkabera*: Estilo hau inplikatzeko maila altua eta gainbegiratzeko maila baxua elkarrekin gurutzatzen direnean sortzen da.
- Autoritarioa*: Honen ezaugarri nagusiak inplikatzeko maila baxua eta gainbegiratzeko maila altua dira.
- Zabarra*: Sozializatzeko-estilo hau darabilten gurasoek maila oso baxuak erakusten dituzte bi dimentsioetan; inplikatzeko eta gainbegiratzeko.

Oro har familia-barneko sozializatzeko-estiloa baimentzailea edo barkabera denean lortzen dira guraso-haurren arteko komunikazioan maila hobeenak; estilo hau darabilten gurasoek seme-alaben jokabideak arrazionaltasunez bideratzen saiatzen dira eta elkarrizketa bultzatzen dute. Haurren jokabide desegokiak aurrean ordea jokabide-ereduak ez dira berdinak bi estilo horietan. Guraso barkaberek ez dute hertsatze/inposatzerik erabiltzen eta guraso baimentzaileak berriz bai. Gurasoen estiloa autoritarioa denean gurasoek hainbat egoeratan seme-alabengan duten boterea darabiltzate eta horrekin batera haurrekiko inplikatzeko afektibo maila baxua erakusten dute. Guraso zabarrak axolagabeak dira seme-alabekiko eta euren hertsatze-maila, afektu-maila eta haurrenganako kontrola baxua izaten da.

Gurasoekiko sozializatzeko-estiloak aztertze helburuarekin sorturiko azkenetako tresna ESPA29 (Musitu eta Garcia, 2001) da. Eskala hori aipaturiko ereduaren oinarritzen da. Testak sozializatzeko barnean bi dimentsio nagusi definitzen ditu, gurasoek seme-alabekiko erakusten duten *inplikatzeko/onartzea* eta gurasoek seme-alabekiko darabilten *hertsatze/inposatzea*. Haurren jokabide egokiak aurrean inplikatzeko/onartzea deritzon estiloa seme-alabenganako baieztapena eta *afektu* erreakzioekin loturik dago eta jokabideak desegokiak direnean berriz *elkarrizketarekin*. Inplikatzeko/onartze maila baxuko sozializatzeko estilodun gurasoek indiferentzia erakutsiko dute haurren jokabide zuzenekin eta displizentzia haiek arauak hausten dituztenean. Hertsatze/inposatzea izeneko estiloa darabiltzaten gurasoek seme-alaben jokabide desegokiak aurrean ahozko hertsatzeaz, hertsatze fisikoaz eta debekuez erantzun dute.

Sozializatzeko-estiloak definitzen dituzten bi dimentsio nagusi horietaz gain konstruktuko psikologiko honek beste zenbait ezaugarri ditu; hala nola, horren izaera ebolutiboa eta diferentziala. Gurasoek darabiltzaten sozializatzeko-estiloak seme-alabek hazten doazen bezala bilakatzen doaz eta ez dira erabat berdinak semeentzat eta alabentzat. Oro har, haurra hazi eta autonomia irabazten doala, gurasoen eragina gutxiagotuz doa eta horren eraginez bermoldatzen da sozializatzeko-estiloa. Sexuen araberrako diferentziak

ere ageri dira sozializatzeko prozesuetan eta horiek, gure gizartean gizonen eta emakumezkoen rol desberdinekin loturik daude; hala neskekin onartze/inplikatzeko mailak altuagoak izaten dira eta mutilekin errazago erabiltzen dira berriz zigorrak eta gabetzeak.

Sozializatzeko-estiloak definitzen dituen ingurune honetan, bidimentsiozkoa eta dinamikoa, lan honen helburua horiek deskribatzea da. Estiloen ezaugarriak aztertu nahi dira sexuaren arabera eta adinaren arabera. Aldi berean, lan honen beste helburuetako bat, ESPA29 galdesortaren euskarazko egokitzapenaren zuzentasun psikometrikoa bermatzea da. Helburu hau bi oinarrietan zedarritu dugu; AERA, APA eta NCME-k testak eraikitze eta erabiltzeko emandako gomendioetan (AERA, APA eta NCME, 1999; Elosua, 2003b) eta *International Test Commission-ek* testak egokitzeko emandakoetan (Elosua 2003a, 2005).

2. METODOA

2.1. Partaideak

Sozializatzeko-estiloak aztertzeko erabili den lagina 10-17 urte bitarteko hurrez osaturik dago. D ere duan diharduten Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 1184 ikasle dira. Horietatik, 598 mutilak dira eta 586 neskek (Ik. 1.go taula).

1.go taula

Laginarene banaketa sexua eta adinaren arabera

Adina	Mutilak	Neskek	Guztira
10	70	66	136
11	84	74	158
12	62	57	119
13	78	71	159
14	70	96	166
15	87	69	156
16	79	93	152
17	68	80	148
Guztira	598	586	1.184

2.2. Tresna

ESPA29 eskalak nerabearen eguneroko bizitzako 29 jarduera biltzen ditu. Testa betetzen duenak jarduera horien aurrean gurasoen (amarena eta

aitarena) erreakzioak balioztatu behar ditu sozializatzeko-estiloekin lotura duten dimentsioetan. ESPA29-k zazpi azpi-eskala definiturik dauzka: *afektua, dialogoa, displizentzia, indiferentzia, hertsatze fisikoa, ahozko hertsatzea, eta gabetzea*. Zazpi alderdi horiekin sozializatzearen bi dimentsio nagusi islatu nahi dira: onartze/inplikatzeko eta hertsatze/inposatzeak. Afektua, dialogoa, displizentzia eta indiferentziak osatzen dute onartze/inplikatzeko eta hertsatze fisikoak, gabetzeak eta ahozko hertsatzeak berriz hertsatze/inposatze deritzona. Orotara testak 106 item ditu (zenbait item 5 azpi-eskaletan balioztatzen dira eta beste zenbait berriz bitan) aitaren sozializatzeko-estiloa balioztatzeko eta beste 106 amarena balioztatzeko eta ikasleak bakoitzean erantzuteko lau aukera ditu: inoiz ez, zenbaitetan, askotan, beti.

Adibide gisa eskalaren bigarren itema dakargu;

2 Ikasten ez badut edo ikastetxean bidaltzen dizkidaten etxeko-lanak egiten ez baditut

Ikasleak bost dimentsioetan balioztatu behar ditu amaren eta aitaren jokatibideak:

<i>Berdin zaio</i>				<i>Errieta egiten dit</i>				<i>Jo egiten nau</i>				<i>Zerbait galarazten dit</i>				<i>Nirekin hitz egiten du</i>			
1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4

2.3. Egokitzea

ESPA29 galdesorta euskaratzeko erabilitako prozedura alderantzizko egokitzea izan da (Elosua, 2003a). Hori hiru etapatan egiten den egokitzea da. Lehen aldian, jatorrizko bertsioa euskaratzen da. Bigarren aldian, euskaraturiko testa gaztelarara berregokitzen da, eta azkenean gaztelarazko bi bertsioak, jatorrizkoa eta berregokiturikoa, alderatu eta horien arteko diferentziak aztertzen dira. Egokitzearen aldi bakoitza itzultzaile batek egiten du; guztira hiru filologoek hartu dute parte.

3. EMAITZAK

3.1. Jatorrizko probarekiko baliokidetasuna

Euskaraturiko bertsioak jatorrizkoarekiko duen baliokidetasunaren frogak biltzeko (Elosua 2004; Elosua eta López, 2004), fidadarritasun-koefizienteen arteko eta barne-egituren arteko berdintasunak aztertu dira. Análisi horiek egiteko ESPA29 eskalaren sorreran erabilitako laginaz baliatu gara (Musitu eta Garcia, 2001). Jatorrizko lagina 1800 ikaslez osaturik dago; 757 mutil eta 1043 neska.

Jatorrizko testarekin lorturiko alpha koefizientea 0,968 da, eta egokiturikoa 0,97. Feldt-en estatistikoak lorturiko balioak ($w=1,032$) testen arteko baliokidetasunaren hipotesia onartzera garamatza ($p = 0,276$).

Barne-egituren arteko berdintasuna aztertzeko Tucker-en kongruentzia-indizea (1951) erabili dugu. Honek, bi laginetan, jatorrizkoa eta egokiturikoan, sorturiko faktore-egituren arteko berdintasuna ikertzen laguntzen du horretarako faktoreek itemetan dituzten pisuen ikurra eta tamaina alderatzen ditu. Bi dimentsio nagusietan lorturiko balioek (0,996 onartze/implikatzea eta 0,961 hertsatzea/inposatzea) berdintasunaren hipotesia onartzera garamatzate.

3.2. Sexuaren eta adinaren arabeko diferentziak

Sozializatzeko-estiloekin loturiko alderdi bakoitzean egon daitezkeen diferentziak bai sexuaren arabera bai adinaren arabera aztertzeko eredu lineal orokorrak eskaintzen duen testuingurua erabili da eta faktore anitzeko bariantza-analisiak burutu dira azpi-eskala bakoitzarekin. Lorturiko emaitzak errazago interpretatzeko adin-mailak adin-taldeetan sailkatu dira. Horretarako lehenik ondoko adin-bikote bakoitzaren barnean diferentzi esanguratsuak ez daudela frogatu da: 10-11, 12-13, 14-15 eta 16-17.

Azterturiko azpi-eskala guztietan adin-talde bakoitzean lorturiko batezbesteko aritmetikoak eta desbideratze estandarrak 2. taulan agertzen dira.

Sozializatzeko estiloen analisi diferentzialak azaltzeko azterturiko dimentsioetan **amari eta aitari dagozkien datuak independenteki aipatuko ditugu**

3.3. Amarekiko antzemanetako sozializatzeko-estiloa

—*Dialogo* azpi-eskala. Azpi-eskala honetan balioen arteko diferentzi esanguratsu bakarrak sexuaren arabekoak dira ($F_{1,1179} = 19,5$; $p < 0,001$). Neskek euren amei egokitzen dizkien balioen batezbesteko aritmetikoa 3,06 da (D.E. = 0,74) eta mutilek berriz 2,89koa (D.E. 0,64). Adinaren arabera ez da sozializatzeko alderdi honetan aldaketa esanguratsurik ikusten ($F_{3,1179} = 1,8$; $p = 0,130$). Sexua eta adinaren artean ez dago inolako interakziorik ($F_{3,1179} = 0,9$; $p = 0,428$).

—*Afektua* azpi-escalan adinak eta sexuak independenteki eragiten dute; ez dago interakziorik ($F_{3,1179} = 47,1$; $p < 0,001$; $F_{1,1179} = 15,7$; $p < 0,001$; $F_{3,1179} = 1,3$; $p = 0,269$). Afektuan neskek balio altuagoak ematen dizkie euren amei (B.A. = 3,25; D.E. = 0,70) mutilek baino (B.A. = 3,11; D.E. = 0,71). Adinaren arabera eskala honetan lortzen diren balioak tendentzi behera-

2. taula

Batezbesteko aritmetikoak eta desbideratze estandarrak adinaren eta sexuaren arabera


	10-11 urte		12-13 urte		14-15 urte		16-17 urte		Mutila		Neska	
	B.A.	D.E.	B.A.	D.E.	B.A.	D.E.	B.A.	D.E.	B.A.	D.E.	B.A.	D.E.
Onartze/Inplikatzia	3,51	(0,36)	3,47	(0,34)	3,34	(0,40)	3,28	(0,39)	3,33	(0,39)	3,47	(0,37)
Ama Dialogoa	3,04	(0,74)	2,98	(0,66)	2,95	(0,67)	2,93	(0,61)	2,89	(0,64)	3,06	(0,70)
Afektua	3,47	(0,66)	3,35	(0,60)	3,03	(0,72)	2,91	(0,69)	3,11	(0,71)	3,25	(0,70)
Displizentzia	1,22	(0,38)	1,20	(0,29)	1,25	(0,32)	1,27	(0,30)	1,29	(0,37)	1,18	(0,26)
Indiferentzia	1,23	(0,35)	1,25	(0,38)	1,36	(0,47)	1,44	(0,48)	1,37	(0,47)	1,27	(0,39)
Onartze/Inplikatzia	3,42	(0,38)	3,37	(0,36)	3,16	(0,45)	3,09	(0,44)	3,22	(0,41)	3,30	(0,45)
Aita Dialogoa	2,91	(0,67)	2,85	(0,65)	2,69	(0,67)	2,71	(0,65)	2,75	(0,64)	2,82	(0,69)
Afektua	3,33	(0,68)	3,18	(0,63)	2,78	(0,73)	2,65	(0,71)	2,91	(0,74)	3,04	(0,74)
Displizentzia	1,27	(0,40)	1,23	(0,26)	1,33	(0,37)	1,40	(0,38)	1,34	(0,38)	1,28	(0,35)
Indiferentzia	1,27	(0,38)	1,33	(0,42)	1,47	(0,54)	1,59	(0,55)	1,45	(0,52)	1,38	(0,47)
Hertsatze/Inposatze	1,82	(0,44)	1,81	(0,38)	1,66	(0,36)	1,60	(0,30)	1,74	(0,39)	1,69	(0,38)
Ama Hert. fisikoa	1,14	(0,30)	1,05	(0,15)	1,04	(0,10)	1,01	(0,18)	1,06	(0,18)	1,05	(0,19)
Gabetzea	1,98	(0,69)	1,96	(0,63)	1,66	(0,57)	1,48	(0,46)	1,81	(0,65)	1,71	(0,60)
Aho-Herts.	2,36	(0,68)	2,43	(0,63)	2,31	(0,62)	2,30	(0,57)	2,36	(0,62)	2,33	(0,64)
Hertsatze/Inposatze	1,80	(0,40)	1,78	(0,35)	1,64	(0,33)	1,55	(0,27)	1,71	(0,36)	1,66	(0,35)
Aita Hert. fisikoa	1,15	(0,29)	1,06	(0,15)	1,06	(0,17)	1,02	(0,08)	1,08	(0,20)	1,07	(0,18)
Gabetzea	1,95	(0,60)	1,91	(0,57)	1,65	(0,48)	1,47	(0,41)	1,78	(0,57)	1,70	(0,54)
Aho-Herts.	2,31	(0,62)	2,37	(0,58)	2,22	(0,58)	2,16	(0,50)	2,29	(0,58)	2,22	(0,57)

korra dute; hala haur txikiengan behatzen dira balio handienak (B.A. = 3,37; D.E. = 0,66) eta zaharrenetan baxuenak (B.A. = 2,91; D.E. = 0,69)

—*Arduragabekeria (displizentzia)* azpi-eskalan, desberdintasun esanguratsuak ageri dira adinari ($F_{3,1179} = 2,7$; $p = 0,04$) eta sexuari dagozkienetan ($F_{1,1179} = 32,5$; $p < 0,001$) eta ez dago interakziorik ($F_{3,1179} = 2,1$; $p = 0,096$). Neskek amarengan antzematen duten arduragabekeria (B.A. = 1,18; D.E. = 0,26) mutilek antzematen dutena baino baxuagoa da (B.A. = 1,29; D.E. = 0,37). Adinaren arabera eskala honetan lortzen diren balioak gorakako tendentzia dute. Arduragabekeri maila altuenak 16-17 urteko nerabeekin ageri da (B.A. = 1,27; D.E. = 0,30).

—*Axolagabekeria (indiferentzia)* azpi-eskalan desberdintasun esanguratsuak daude adinaren eta sexuaren arabera ($F_{3,1179} = 17,2$; $p < 0,001$; $F_{1,1179} = 20,7$; $p < 0,001$). Displizentziaren eskalan aurkitu dugun eredu berdinari darraio eskala honek. Nesken balioak, oro har, baxuagoak dira mutilenak baino (B.A._{neska} = 1,27; D.E._{neska} = 0,39) (B.A._{mutila} = 1,37; D.E._{mutila} = 0,47), eta tendentzi gorakorra behatzen da adinaren arabera (Ik. 1.irudia).

—*Hertsatze fisikoa* azpi-eskalan, desberdintasun esanguratsuak daude adinaren arabera ($F_{3,1179} = 28,4$; $p < 0,001$), nahiz ez den aurkitu diferentziarik sexuari dagokionean ($F_{1,1179} = 0,6$; $p = 0,422$). Adinaren arabera eskala honetan lortzen diren balioak tendentzi beherakorra dute. Balio han-




1. go irudia

Amarekin loturiko onartze/inplikatzeko mailak

dienak haur txikienak lortzen dituzte (B.A. = 1,14; D.E. = 0,30). eta handienak berriz 16-17 urteko nerabeek (B.A. = 1,01; D.E. = 0,18).

—*Gabetzea* azpi-eskalan, aztertzen ari garen bi aldagaietan topatu dira desberdintasun esanguratsuak, bai adinean ($F_{3,1179} = 47,6$; $p < 0,001$) bai sexuan ($F_{1,1179} = 7,2$; $p < 0,007$). Oro har balioen tendentzia beherakorra da, eta mutilekin gehiago erabiltzen dute amek gabetzea (B.A. = 1,81; D.E. = 0,65) neskekin baino (B.A. = 1,71; D.E. = 0,60).



2. irudia

Amarekin loturiko hertsatze/inposatze mailak

—*Ahozko hertsatzea* azpi-escalan, ez dira diferentziarik nabari ez adinari ($F_{3,1179} = 2,4$; $p = 0,065$) eta ez sexuari dagokionean ($F_{1,1179} = 0,4$; $p = 0,485$). Sozializatzearen alderdi honetan amek erabiltzen dituzten jokabide ereduak berdinak eta egonkorak dira guztientzat.

Oro har sozialtze-estiloaren barnean definitu diren bi dimentsio nagusiarren Onartze/inplikatzeko eskala orokorrean behatu diren balioen artean diferentzi esanguratsuak daude adinaren eta sexuaren arabera. Adinaren arabera tendentzi beharokorra dago eta neskek lortzen dituzten balioen batezbestekoak (B.A. = 3,47; D.E. = 0,37) mutilek lortzen dituztenak (B.A. = 3,33; D.E. = 0,39) baino altuagoak dira (Ik. 1. go irudia).

Hertsatze/inposatze eskalan, berriz, soilik adinari dagokionean aurkitu dira diferentziak ($F_{3,1179} = 24,7$; $p < 0,000$), aldiz, sexuari dagokionean ez dago horrelakorik ($F_{1,1179} = 3,6$; $p = 0,055$). Adinaren arabera tendentzia beharokorra dago (Ikus. 2. irudia)

3.4. Aitarekiko antzemanetako sozializatze-estiloak

—*Dialogoa*: Desberdintasun esanguratsuak azaleratu dira adinaren arabera ($F_{3,1179} = 7,9$; $p < 0,001$) eta ez dira diferentziak ikusten sexuaren arabera ($F_{1,1179} = 3,8$; $p = 0,051$). Haurrak haztearekin batera aitek heurrekin erakusten duten dialogo-maila gutxitu egiten dira (Ikus. taula 2).


—*Afektua* azpi-escalan adinaren eta sexuaren arabera desberdintasunak daude ($F_{3,1179} = 65,9$; $p < 0,001$; $F_{1,1179} = 13,3$; $p < 0,001$). Berriz ere tendentzi beharokorra dago adinaren arabera eta neskenganako afektua altuagoa da.

—*Arduragabekeria* (Displizientzia) azpi-escalan, desberdintasun esanguratsuak daude, bai adinari ($F_{3,1179} = 11,9$; $p < 0,001$) eta bai sexuari dagokionetan ($F_{1,1179} = 7,5$; $p = 0,006$). Balioak gorantz doaz adinarekin batera eta neskek lortzen dituzten balioen batezbestekoak altuagoak dira.

—*Indiferentzia* (Axolagabekeria). Aurrekoaren jokabide eredu berdina behatzen da hemen. Diferentziak daude adinaren eta sexuaren arabera ($F_{3,1179} = 26,8$; $p < 0,001$; $F_{1,1179} = 8,8$; $p = 0,003$). Adinarekin batera balioak igo egiten dira, eta aitek neskenganako duten axolagabekeria (B.A. = 1,38; D.E. = 0,47) baxuagoa da mutilenganakoa (B.A. = 1,45; D.E. = 0,52) baino.

—Aitarekin loturiko *onartze/inplikatzeko* dimentsioan, ezberdintasun esanguratsuak aurkitu dira bai adinari ($F_{3,1179} = 44,8$; $p < 0,001$) eta baita sexuari dagokionean ($F_{1,1179} = 14,4$; $p < 0,001$). Nesken balioen batezbestekoa 3,30 (D.E. = 0,45) eta mutilarena 3,22 (D.E. = 0,41). (Ik. 3. go irudia)

—*Hertsatze fisikoa* azpi-escalan, desberdintasun esanguratsuak ikus daitezke adinaren arabera ($F_{3,1179} = 25,1$; $p < 0,001$), aldiz, ez da aurkitu diferentziarik sexuari dagokionean ($F_{1,1179} = 0,3$; $p = 0,547$). Amaren kasuan bezalaxe, aitek haurrekin darabilen hartsadura fisikoaren maila gutxituz doa haurrak hazten doazen mailan.




3. irudia

Aitarekin loturiko onartze/inplikatzeko mailak

—*Gabetzea*. Aitek haurren jokabide desegokien aurrean darabilten gabetzeak gutxitu egiten dira haurrak handitzen doazen bezala ($F_{3,1179} = 55,2$; $p < 0,001$); haur txikiekin gehiago erabiltzen dute nerabeekin baino. Sexuaren arabera ordea ez da diferentziarik ikusten ($F_{1,1179} = 4,7$; $p = 0,03$)

—Ahozko hertsatze azpi-eskalan, diferentziarik aurkitu dira adinari dagokionean ($F_{3,1179} = 7,5$; $p < 0,001$) eta ez ordea sexuari dagokionean ($F_{1,1179} = 3,2$; $p = 0,07$).



4. irudia

Aitarekin loturiko hertsatze/inposatze mailak

—Oro har, *hertsatzea/inposatzea* deritzon eskala nagusian adinaren arabera tendentzia beherakorra behatu da ($F_{3,1179} = 35,5$; $p < 0,001$) eta jokabide eredu berdina sexuaren arabera ($F_{1,1179} = 4,9$; $p = 0,026$) (Ik. 4.irudia).

3. taula

2 × 4 faktoredun ANOVA adinaren eta sexuaren arabera azpi-eskala bakoitzean

	Adina				Sexua			
	Ama		Aita		Ama		Aita	
	$F_{3,1179}$	p	$F_{3,857}$	p	$F_{1,1179}$	p		
Onartze/Inplikatz	25,920	< 0,001	44,840	< 0,001	37,970	< 0,001	14,284	< 0,001
Dialogoa	1,957	0,119	7,937	< 0,001	19,684	< 0,001	3,828	0,050
Afektua	47,267	< 0,001	66,017	< 0,001	15,507	< 0,001	13,183	< 0,001
Displizentzia	2,720	0,043	11,960	< 0,001	31,869	< 0,001	7,776	0,005
Indiferentzia	17,195	< 0,001	26,629	< 0,001	20,277	< 0,001	8,424	0,004
Hertsatze/Inposatze	24,860	< 0,001	35,627	< 0,001	3,650	0,050	4,959	0,026
Hertsatze Fisikoa	28,664	< 0,001	25,365	< 0,001	0,640	0,424	0,325	0,569
Gabetzea	47,826	< 0,001	55,445	< 0,001	7,192	0,007	4,620	0,032
Aho hertsatze	2,379	0,068	7,499	< 0,001	0,492	0,483	3,408	0,065

4. EZTABAIDA

Azalduriko emaitza partzial guztiak laburtuz ondoko ideia nagusiak aipatuko genituzke:

- Aitarekiko azterturiko azpi-eskala guztietan eta bi dimentsio nagusietan (onartze/inplikatzeta eta hertsatze/inposatze) desberdintasunak daude adin mailen artean (ikus 3. taula).
- Amaren kasuan jokabide-eredu berdina topa ditzakegu bi eskaletan salbu, ahozko hertsatzea eta dialogoa.
- Bi gurasoentzat tendentzi berdina antzematen da. Dialogoa eta afektua adinarekin batera gutxiagotzen doaz eta displizentziak eta indiferentziak berriz tendentzi gorakorra dute.
- Hertsatze fisikoa eta gabetzea gutxiagotzen doaz adinarekin batera. Ahozko hertsatzea berriz lehen mailatan igo egiten da eta 13urtekin aurrera gutxiagotzen doa. Hertsatzea/gabetza dimentsioa osatzen duten hiru azpi-eskalatan eredu berdina aurkitu dugu bi gurasoekin.
- Oro har seme eta alaben artean diferentziak daude azpi-eskala guztietan eta dimentsio nagusietan ere; hertsaduren (fisikoa nahiz ahozkoa) kasuan salbu.
- Onartze/inplikatzeta dimentsioarekin loturiko eskala guztietan balioak desberdinak dira sexuaren arabera. Neskak amarengan antzemandaiko dialogoa eta afektua mutilek antzematen dutena baino altuagoa

da. Aitarekin loturiko antzemateak ere altuagoak dira neskegan mutilengan baino. Alderantzikoa gertatzen da dimentsio honen beste bi osagaiekin, displizentzia eta indiferentzia. Azken hauetan mutilek gurasoei (bai aita bai ama) esleitzen dizkieten balioak neskek esleitzen dizkietenak baino altuagoak dira. Hertsatze/Inposatze dimentsioan azpi-eskala bakarra dago diferentzi esanguratsuekin; gabetzeari dagokiona. Bertan mutilei dagozkien balioak neskei dagozkienak baino altuagoak dira.

Oro har, eta egindako analisi diferentzialak laburtzeko ondokoa esango genuke: gurasoek jarraitzen dituzten pautak ebolutiboak berdinak dira sozializatzeko estiloetako bi dimentsioetan, onartzea/inplikatzeko eta hertsatzea/inposatzea eta ez dago interakziorik sexua eta adinaren artean: adinean haurrak gora doazen bezala beherakako tendentzia dago azpi-eskala guztietan. Bestetik eta aztertutako epealdiari dagokionez, bai aitak bai amak gehiago darabilte onartze/inplikatzeko alabekin semeekin baino. Hertsatze/inposatze maila berriz berdina da oro har, gabetzea salbu. Jokabide desegokien aurreko gabetzea erabiltzen duten gurasoek gehiago erabiltzen dute sozializatzeko estilo hau semeekin alabekin baino.

Azkenik euskaraturiko tresnaren ezaugarri psikometrikoak jatorrizko tresnarekiko balioak direla azpimarratuko genuke. Bildutako ebidentziek hala erakusten dute; bi eskalen fidagarritasun-koefizienteak eta barne-egiturak balioak dira. ESPA29 euskaraz diharduten haurrekiko gizarteratze-estiloak ikertzeko tresna baliagarria izan daiteke.

Jasotze-data: 2005-9-19

Onartze-data: 2005-12-16

Abstract

The process of parental socialisation and its repercussions on children and adolescents has been researched both in its cross-cultural dimension and in its psychological and education dimension. The interest of psychologists and pedagogues is founded in the idea that the socialisation process will depend not only on the child's adaptation but also their role in society and their contribution to their community. Within a theoretical framework which defines the parental socialisation styles using a bi-dimensional and dynamic model, the objective of this work is to describe the styles of socialisation found in a sample extracted from the Basque Country Autonomous Community. At the same time and due to a lack of psycho-pedagogical instruments for this purpose, there is a wish to obtain evidence of the validity that the Basque language is adapted to the «Styles of parental socialisation ESPA29» scale. The

adapted version of the scale was administered to 1184 students aged between 10 and 17. In general, the results indicate equivalence between scales (original/adapted) and statistically significant differences in the values found within the dimensions which define the different styles of socialisation regarding age and gender.

Keywords: Socialization style. Test adjustment. Variance analysis. Sample

Los procesos de socialización parental y sus repercusiones en el niño y en el adolescente ha sido objeto de investigación tanto en su dimensión transcultural como en su dimensión psicológica y educativa. El interés de psicólogos y pedagogos está fundado en que del proceso de socialización dependerá no sólo la adaptación del niño sino también su papel en la sociedad y su contribución a la comunidad de la que forma parte. Dentro de un marco teórico que define los estilos de socialización parental a partir de un modelo bidimensional y dinámico el objetivo de este trabajo es describir los estilos de socialización encontrados en una muestra extraída de la CAPV. Al mismo tiempo, y ante la falta de instrumentos psicopedagógicos construidos con este fin se quieren obtener evidencias de validez de la adaptación al euskera de la escala «Estilos de socialización parental ESPA29». La versión adaptada de la escala ha sido administrada a 1184 alumnos con edades comprendidas entre 10 y 17. En general, los resultados indican equivalencia entre escalas (original/adaptada) y diferencias estadísticamente significativas en los valores encontrados dentro de las dimensiones que definen los diferentes estilos de socialización con respecto a la edad y al sexo.

Palabras clave: Estilos de socialización. Adaptación de tests. Análisis de varianza. Muestra

Les processus de socialisation parentale et ses répercussions sur l'enfant et l'adolescent ont fait l'objet de recherches aussi bien dans sa dimension trans-culturelle que dans sa dimension psychologique et éducative. L'intérêt des psychologues et des pédagogues porte sur le fait que du processus de socialisation dépendra non seulement l'adaptation de l'enfant, et aussi sur son rôle dans la société et sa contribution à la communauté dont il fait partie. Dans un cadre théorique qui définit les styles de socialisation parentale à partir d'un modèle bi-dimensionnel et dynamique, l'objectif de ce travail est de décrire les modèles de socialisation décelés chez un échantillon tiré de la CAPV. En même temps et face au manque d'instruments psychopédagogiques élaborés dans ce but, on veut clairement parvenir à ce que soit validée l'adaptation au basque de l'échelle «Modèles de Socialisation parentale ESPA29». La version adaptée de l'échelle a été attribuée à 1184 élèves d'âges compris entre 10 et 17 ans. En général, les résultats in-

diquent une équivalence entre les échelles (originale/adaptée) et les différences statistiquement significatives au niveau des valeurs relevées dans les dimensions qui définissent les différents styles de socialisation en fonction de l'âge et du sexe.

Mots clé: Style de socialisation. Adaptation d'un test. Analyse de variance. Échantillon.

BIBLIOGRAFIA

- ARNETT, Jeffrey J. (1995). «Broad and Narrow Socialization: The Family in the Context of a Cultural Theory». *Journal of Marriage and the Family* 57(3):617-28.
- BARBER, B. K., CHADWICK, B. A. y OERTER, R. (1992). «Parental behaviors and adolescent self-esteem in the United States and Germany». *Journal of Marriage and the Family*, 54, 128-141.
- BARNES, G.M., and FARRELL, M. (1992). «Parental support and control as predictor of adolescent drinking, delinquency, and related problem behaviors». *Journal of Marriage and the Family*, 54 (4), 763-776.
- ELOSUA, P. (2003a) «Testen euskaratzea. Balizko alborapenaren iturriak». *Tantak* 30, 17-38.
- ELOSUA, P. (2003b) «Sobre la validez de los tests». *Psicothema*, 15(2),315-321.
- ELOSUA, P. (2005) *Psikometria. Testen eraketa eta erabilpena*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ELOSUA, P. (2004) «AFA autokontzeptuaren euskaratzea». *Tantak*, 32.
- ELOSUA, P. y LÓPEZ, A. (2004) *Análisis factorial multigupo*. III Congreso de Metodología de Encuestas. Granada.
- FELDT, L.S. (1969) «A test of the hypothesis that Cronbach's alpha or Kuder-Richardson coefficient twenty is the same for two tests». *Psychometrika*, 34, 363-373.
- FOXCRIFT, D. R. and LOWE, G. (1991) «Adolescents' drinking behaviour and family socialization factors: a meta-analysis». *Journal of Adolescents* 14, 255-273.
- LAMBORN, S. D., MOUNTS, N. S., STEINBERG, L., y DORNBUSCH, S. M. (1991). «Patterns of competence and adjustment from authoritative, authoritarian, indulgent and neglectful families». *Child Development*, 62, 1049-1065.
- LEVINE, M.S. (1977). *Canonical correlation analysis and factor comparison techniques*. Sage, Beverly Hills.
- MUSITU, G. eta ALLAT, P. (1994) *Psicosociología de la familia*. Valencia: Albatros.
- MUSITU, G. y GARCÍA, F. (2001). *ESPA29. Escala de Estilos de Socialización Parental en la Adolescencia*: TEA Ediciones.
- PAULSON, S. E., eta SPUTA, C. L. (1996). «Patterns of parenting during adolescence: Perceptions of adolescents and parents». *Adolescence*, 31(122), 369-381.
- SCARR, S. (1993). «Biological and cultural diversity: The legacy of Darwin for development». *Child Development*, 64, 1333-1353.
- SMETANA, J. G. (1995). «Parenting styles and conceptions of parental authority during adolescence». *Child Development*, 66, 299-316.

- SHUCKSMITH, J., HENDRY, L.B., & GLENDINNING, A. (1995). «Models of parenting: Implications for adolescent well-being within different types of family contexts». *Journal of Adolescence*, 18, 253–270.
- STEINBERG, L. y DORNBUSCH, S. (1991). «Negative correlates of part-time employment during adolescence: Replication and elaboration». *Developmental Psychology*, 27, 304-313.
- STEINBERG, L., LAMBORN, S. D., DARLING, N. MOUNTS, N. S., & DORNBUSCH, S. M. (1994). «Over-time changes in adjustment and competence among adolescents from authoritative, authoritarian, indulgent, and neglectful families». *Child Development*, 65, 754-770.
- TUCKER, L.R. (1951) *A method for synthesis of factor analysis studies. (Personnel Research Sections. Report 984)*. Washington, D.C. Department of the Army.